

Lehen gerra karlista bertsoen argitan.

Foruak eta erlijioa hitz neurtuetan (1823-1840)

Jurgi Kintana Goirieta
Historian lizentziatua

Artikulu honek Hirurteko Liberaleko eta lehen gerra karlistako bertsoak aztertzen ditu garaiko historia ulertzera begira. Mentalitateak ikertzeko hain baliagarria den iturri horren analisi kritikoa egin ondoren, foruak eta erlijioa bertsoetan zelan agertzen diren jorratu da, bi auziok euskaldun karlista eta liberalen kezken artean present zeudela baieztatuz. Zehazkiago, bando eta maila sozial desberdinek agertzen zituzten jarrerak bereizi dira, nabarmentzekoak izanik nahiko ezezagun zaizkigun ikuspegi herritarrak. Artikulu honetan, halaber, bertsoak ikerketa historiografikoan nola erabili ikus daiteke, iturri horrek eskaintzen dituen aukerak agerian jarriz.

The article analyses “bertsoak” (Basque popular poems) in The Three Liberal Years and on the first Carlist War, looking at the history of those periods. After doing a critical analysis of this source which is so useful to examine mentalities, it goes on the way “Foruak” (Basque traditional laws) and religion are shown in “bertsoak”, confirming that these two matters are present within carlist and liberal Basque people’ preoccupations. Different parties and social status’ attitudes are differentiated, emphasising points of view of people which are quite unknown to us. The article also shows the way “bertsoak” can be used in the historiography investigation, explaining possibilities this source offers.

Sarrera

Lan honek proiektu zabalago baten abiapuntu izan nahi luke. Azkeneko helburua, lehen gerra karlistaren inguruan euskaldunek agertzen zituzten mentalitateak aztertzea da, iturritzat bertsoak erabiliz. Oraingo honetan zerbait apalagoa dakargu esku artean, lan orokor horren aurreneko atal gisa.

Antonio Zavala bertso-biltzaileak aspaldi ohartarazi zuen bezala (1964: 38), bertsoek informazio ugari gordetzen dute, bereziki —baina ez soilik— garaiko jende xehearen mentalitateak aztertzeko. Hala ere, oso gutxi erabili izan dira egundaino. Hasteko bada, iturri honen kritika egingo dugu, eskaintzen dizkigun aukerak aztertu eta kontuan eduki beharreko arazoak agertuz. Ondoren, bertsoek historia lantzeko duten potentzialitatearen adibide gisa, kasu konkretu bat ikusiko dugu: foruak eta erlijioa nola agertzen ziren bando eta maila sozial desberdinetako euskaldunen gogoetan. Hau jadanik auzi zaharra da. Foruek eta erlijioak gerra karlistetan izandako garrantziaren polemika borrokak bukatu aurretik azaldu zen. Nolanahi ere, ez da larregi ikertu herritar apalek honetaz agertzen zuten iritzia. Horregatik bertsoak erabiliz eztabaida historiografikoari argi berriren bat egin diezaiokegula uste dugu.

1. Bertsoak mentalitateak aztertzeko iturri legez

1.1. Karlistadako mentalitateak

Lehen gerra karlista eta bere testuingurua idatzi ugari eman duen gaia izan da. Gatazka haren erdian agertu ziren aurreneko liburuek eta lanek gure egunotaraino jarraitu dute. Garai hori ikuspegi anitzetik behatu da: kronika ofizialak, buruzagien biografiak, gertakarien kontaketak, ideologia karlistaren eta liberalaren ikerketak, egoeraren azterketa ekonomikoak, politikoak, sozialak, erlijiosoak, e. a.

Dena dela, gai honetan bada oraindik gutxi landuriko atalik. Hala, mentalitateen ikerketa ez da oso oraintsu arte abiatu. Mentalitate kontzeptua nahiko labainkorra da beti ere. Mentalitateak, iritzi eta errepresentazio kolektiboen multzo gisa definitu ohi dira. Era berean ideologietatik bereizten dira ez-ofizialak izateagatik eta esparru herritarragoan lanketa berezirik gabe sortzeagatik. Mentalitate eta ideologiek, nahiz elkar eragin, bazkide desberdinak eduki ohi dituzte, eta gehienetan bateragarriak izaten dira. Mentalitate esatean ez dugu mundu-ikuskerak global eta monolitiko bat adierazten. Izan ere, ez da herritar-pentsakera bakar bat egoten.

Zazpi Urteko Gerraren kasuan, gizarte maila, ikasketak, kaletar edo landatar izatea, karlistekin edo liberalekin borrokatzea eta beste hamaika aldagai zeuden jendeak gerra hartako errealitatea ulertzeko zuen eran eragin zezaketenak, ondorioak ere beste horrenbeste sortaraziz. Gizabanako bakoitzak bere ikuspegi partikularra edukitzeak, ordea, ez du kentzen maila hori baino haratago, pertsona-multzoek konpartitzen zituzten ideiak ere egotea. Ideia komun horiek dira bilatu beharrekoak. Horretarako, puntu batzuk planteatu eta horien aurrean bando desberdinetako euskaldunek azaltzen zituzten ikuspegiak bilduko ditugu.

1.2. Bertsoen erabilera historiografian

Gerra karlistako mentalitateak orain arte larregi ez aztertzeak badu zerikusirik erabili diren iturriekin. Historialari gehienek dokumentu idatziak baliatu dituzte. Eta hain zuzen, mentalitateen ezaugarrietako bat beren izaera ez-ofiziala da, hots, idazki gehienetan isla gabekoak izatea. Gainera garaiko ikasiek behe-mailako pertsonen ideiak jasotzen zituzten aldietan, ideologia ofizialaren arabera interpreta zitzaizketen, hein batean itxuraldatuz. Iturrien arazo honek azaltzen du neurri handiz karlistadetakoko mentalitateen ikerketak horren garapen eskasa izatea. Zentzu horretan, bertsoak, ustiatzeko dauden harrobi emankor bezala azaltzen zaizkigu. Dena dela, ezin esan orain arte larregi erabili direnik. Sakabanaturik eta euskaraz egoteak ia ezezagun bihurtu ditu historialari gehienentzat. Badaude edozein kasutan aurrekari batzuk.

Antonio Zavalak (1992) bere lanean zehar egunkarietan argitaraturiko zenbait artikulua aipatzen dizkigu, non bertsoen batekin batera iruzkin historikoa egiten den. Caro Barojak herri kantuak sarritan erabili zituen bere ikerketa etnografikoetan. Eta bere lan batean (1972), lehen karlistadaz ziharduela, bertso-pare bat agertu zituen, garaiko giroa erakusteko. Labayenek Muñagorri buruz egindako liburuan (1976) hark idatzarazitako bertsoak dakartza. Jean Haritschelharren ekarria ere kontuan hartzekoa da (1978), lehen karlistadako bertso-sail dexente bilduaz. Alfonso Irigoyenen artikulua batean (1978) Hirurteko Liberaleko bertso-sail luzeekin batera, sarrera historikoa eta orduko diputazioaren akordio batzuk aurki daitezke. Modu zentratuagoan, bertsoak iturritzat erabili dituen Vicente Garmendia izan da (1985), batez ere herritarren pentsakera ikusteko. Bertso mordotxoak tratatu ditu. Alta, bere lanaren osagarri dira, ez ikergai nagusia. Bestalde Garmendiak bigarren gerra karlista ikertzen du, ez lehenengoa. Garmendiaren antzera, Mikel Urquijok, bigarren karlistada bueltako herri-karismoa aztertzen du zenbait bertsoz baliatuz (1994: 194-197). Dagokigun garaiari, hots, lehen gerra karlistari, Joseba Agirreazkuenagak oratzen dio (1990b). Bertsoek mentalitateak aztertzeko duten baliagarritasuna seinalatu eta bertso-sail kopuru nabarmena batu eta argitaratzen du eranskin batean. Hala ere lan horretan ez ditu bertsook jorratzen, iker-tzaileei iturriak eman baino. Beste obra batean darabiltza Agirreazkuenagak (1993) XIX. mendeko zenbait bertso. Berrikiago Alexandra Wilhelmsenek (1995: 240-241) ustez lehen karlistadakoak diren bertso bi ukitzen ditu.

Kasu hauek, bertsoen erabileran aitzindari diren arren, bertsoen baliatze mugatua baino ez dute egin. Autoreotako zenbaitek, gainera, bertsoen itzulpena erabili dute, oso fidagarriak ez izaki. Bertso-sail luzeen gainean ikerketa sistematikoak egiteke daude. Iturrien azterketa kritikoa ere egin gabe dago. Ze bertsoak, mentalitateak ikertzeko aipatu ditugun arazo asko saihesten dituzten arren, ez dira erabat arazo gabeak.

1.3. Bertsoen kontserbazioa

Lehen arazoa bertsoen kontserbazioarekin erlazionaturik dago. Guganaino heldu diren bertsoak, zein neurritan dira duela mende t'erdi egin zirenen adierazgarri? Izan ere, hain denbora luzean dexente galdu bide dira. Eta iraun dutenen artean, egin zirenetik erregistratu arte, kasu askotan, denbora pasa da eta tarte horretan eraldaketak jasan zitzaizketen. Honi erantzuteko, aztergai dugun materialaren nondik norakoa ikusi beharko dugu.

Bilketa-lan nagusia, Antonio Zavalaren *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak* liburua da (1992). Lan eskerga horretan, oso jatorri desberdineko bertsoak biltzen dira. Funtsean, iturri-motaren arabera, bi multzotan bereiz ditzakegu: batzuk lehen karlistadan bertan eginiko bertso-paperak dira, artxibategietan-eta egundaino kontserbatuak; besteak, jendearen artean ahoz iraun, eta batez ere 1920-30eko hamarkadetan idatziz jasotakoak dira. Badaude halaber, bi moduetara heldu zaizkigunak: bai jatorrizko bertso-paperak eta bai bertso horien ahozko bertsoak. Ahoz iraun duten bertsoen kasuan, eraldaketa-arrisku nagusia bigarren gerrate karlistari loturik egon daiteke, zeren eta gerra hartan, aurreko karlistadako kantuak erabili ziren neurrian (eta erabili egin ziren), orduko berrikuntza ideologikoen egokitzapena jasan zezaketen. Sarri ahozko bariante desberdinak kontserbatu dira, eta hauen arteko alderaketak jatorrizko bertsoa berreraikitzen lagunduko digu. Zavalak aldakien gainean ematen digun informazio zehatza oso egokia da kritika testual hauetarako.

Lehen karlistada garaian idatziz jarritako bertso gehienak zuzenean bertso-paper gisa sortu ziren. Hauek, besterik gabe, egilearen mezua dakarkete. Baina baliteke garaiko beste bertso idatzi batzuk ahoz sortuak izatea eta ondoren iragatea izkribuetara. Kasu horretan, ahozko bertsoetik idatzira iragateko prozesuan, ezinbestez, pertsona letraturen baten bitartekotza jasan zuten, eta agian, inoiz, jatorrizko mezua zertxobait ukitua izan zitekeen ideologia ofizialen baten zentzurantz.

Gisa honetako distortsioengatik, dudak izan ditzakegu bertso bakar batean ager daitekeen aparteko ideiaren baten egiazkotasunaz. Baina ideia bat sarritan eta bertso sail askotan agertzen den heinean, distortsioen arriskuak txikitu egingo dira. Gai bat zenbat eta maizago tratatu bertsoek, orduan eta fideltasun handiagoz ikusiko ditugu garaikoen pentsakerak. Zailtasunak, bada, puntu oso espezifikoak ikertzean egon daitezke, aztergai konkretu batzuei dagokienez aipamen bakanak baino ez aurkitzea gerta daiteke eta. Kasu horietan ezingo dugu ondorio orokorrik ezta segururik ere atera. Baina oro har, eta beti kritikoki, heldu zaizkigun bertsoak jatorrizko ideietan itxuraldaketa larriak jasan gabe daudela pentsa dezakegu.

1.4. Bertsoen adierazgarritasuna

Kontserbazio-faktorea ikusi ondoren, bertsoen adierazgarritasuna da bigarren arazo nagusia. Bertsoak —egin ziren garaian bertan— zein neurritan ziren jendeak pentsatzen zuenaren adierazgarri? Edo zehazkiago, zein jenderen pentsakera agertzen zuten? «Herriaren pentsakera» agertzen zutela esatea erantzun hutsala da. Bertsoen nondikoak behatuz, hitz neurtuek beren egileak (zenbait ezagunak) eta intenzionalitate politikoa zituztela ikusten da. Hortaz, aldagai horiek tratatu beharko.

Bertsoek lehen-lehenik beren egileen ideiak erakutsiko zituzten, bertsolarienak alegia. Bertsolariak, noski, ez zeuden ingurunetik isolaturik. Talde eta maila sozial diferenteetako partaide ziren, eta neurri horretan beren iritzi partikularra ez eze talde horien pentsakerak ere islatuko zituzten. Hola bada, bertsoak, beren egileen gizarte-estratuko mentalitateen adierazgarritzat har daitezke. Baina bertsolarien kokaera sozialaz gain, entzuleak ere kontsideratu behar ditugu. Bertsoak biztanleek ulertu eta onartuak izateko egiten ziren eta. Hori lortu ahal izateko beharrezkoa zen jendeak zerabilen “hizkera” edo erreferentziak baliatzea. Hau da, bertsoek kon-

tzepzio ezagunak eta ideia konpartituak adierazi behar zituzten neurri batez. Zentzu horretan, bertso baten zabalkunde eta arrakasta handia (guganaino bertso askotan heldu izanak froga dezakeena) bertako ideiak jende askok bere izatearen edo egitearen adierazletzat har dezakegu. Hola bada, bertsoegilea, bertsoa nori zuzentzen zitzaion eta bertsoaren arrakasta zein zen kontuan hartuz, herritar mentalitate batzuk atera ahalko ditugu.

Bestalde, bertsoen lotura ez zen klase herritarrekin bakarrik ezartzen. Bertsoek uste dezakeguna baino harreman handiagoa zuten ideologia ofizialekin, Zazpi Urteko Gerrako bertso guztiak ez baitziren herri-bertsolariek sortuak izan. Agintari karlista zein liberalek bertso ugari eginarazi zituzten helburu propagandistikoekin. Antonio Zavalak dioskunez (1992: 10-11), «garaian prentsa gutxi izango zan, eta ura erderaz. Euskeraz zer egin, beraz? Utsune ori bertso-paperak bete zuten. Eta, dirudianez, liberalak izan ziran artara leenengo jo zutenak, eta karlistak jarrai.» Beraz bando desberdinetako agintaritzek bertso-paperak egin eta zabaltzen zituzten. Izan ere, zer hoberik euskal masak erakartzeko bere hizkuntzan eta bitarteko herrikoi baten bidez zuzentzea baino?

Bertso-paper horiek, edozelan ere, ez ziren ideologia ofiziala gordin-gordinean bertsoan ematea. Itxura batean, mezu ofizialak bertsoan jarrarazi baino gehiago, bando bakoitzak bere aldeko bertsolariak zituen eta horien lana sustatzen zuen.¹ Bertso-paperen egileak eskolatuak ohi ziren eta nahiko argi zeukaten doktrina ofiziala. “Kausaren” ideiak berenganatuta zituztenez, aski zen beren bertsoak askatasunez idazten uztea, ondoren publikatu eta zabaltzeko.

Dena dela ez dugu pentsatu behar mailakatze erabatekorik zegoenik herri-bertsolari eta eskolatuaren artean. Bertsoak erabiltzeagatik besterik ez bazen ere, bertsolari guztiak populazio herrikoarekin loturan zeuden, adierazpide hau publiko horri zuzenduta baitzegoen. Gainera bertso-paperak propagandistikoak ziren neurrian, eskolatuaren ideiez aparte herritarren kontzepzioak ere jaso beharko zituzten. Eta alderantziz, jende apalaren artean ikasien ideiek onarpena zuten sarri: bertso-paper askok ahozko bertsoetan irauteak horixe frogatzen digu. Honek ez du esan nahi ezin dugunik inolako bereizketarik ezarri nolabaiteko ikasketadunen eta herri-bertsolarien ideien artean. Bertso-paperetan, euskaldun letratuaren mentalitateak ikusiko dira ondoen, hau da, ideologia ofizialek hurbilekoak. Aldiz, herri-bertsolariengan, ageriagoa izango da jende xehearen pentsakera. Zoritxarrez, bertso herrikoietan ideiak ez dira bertso-paperetan bezainbeste tratatzen, ohikoena guduen eta gertakarien kontaketa izaki.

1.5. Bertsoen esparru kronologiko eta geografikoa

Bertsoak noiz egin ziren jakin al daiteke? Askotan bai. Bertso batzuen hitzek gerra hasi zenetik zenbat urte igaro ziren esaten dute eta beste zenbait uneko data bera agertzen. Azkenik badira kontaktzen dituzten gertakariengatik gutxi gora-behera koka ditzakegun bertsoak. Zailtasunik handiena ahozko bertsoetan agertzen da, ze sail bateko lehen bertsoak data bat emanagatik ez du esan nahi

1. Badira halere norbaiten aginduz mezu jakin bat bertsoan jarrarazitako kasuak, adibidez Gaspar Jauregiaren bertsoak edo Muñagorrirenak. Baina kasu hauetan ere mezu ofiziala entzuleei egokiturik ematen da.

sail horretako bertso guztiak ezinbestez garai berekoak direnik: ahoz transmititzean ez da arraroa izaten bertso-sailari bertso gehiago eranstea, edota jatorrizko saila itxuraldatzea. Horregatik bertso bat dagokion sailean ahozko bertsio desberdinetan agertzen den baieztatzea komeni da, ez dela gehikuntza bat segurtatzeko. Alderaketarako aukerarik ez dagoenean, behintzat gerra garaikoa dela ikusteko aukera dago. Bertso-paperean kasuan, garaiko paperean inprimatua egotea orduan egin zela baieztatzeko era da. Honelako gauzei buruz informazio ugaria ematen digu Zavalak, eta gehienetan bere iritziei jarraituko gatzaizkio.

Esparru geografikoari dagokionez, bertsoak Euskal Herriko hainbat lurraldeetan egin zituzten. Heldu zaizkigunen artean, gipuzkerazkoak dira nagusi, baina bizkaierazko eta nafarrerazkoak ere anitz ditugu. Arabarrek egindakorik, aldiz, ez dugu topatu. Bertsoak euskalki batean sortuagatik, bestelako euskalkidunen artera zabaltzen ziren maiz. Hola, gipuzkoarrek sorturiko «Peñacerrada» bertso-saila, esate baterako, bizkaitarren artean batu ahal izan da². Bertsoen mugimendu hauek noiz gertatu ziren ezin segurta daiteke. Gerra ostean jazo zitezkeen, baina litekeenagoa da gerran bertan gertatzea: bertsoek une horretan zuten interesik handiena, eta herrialde desberdinetako tropak Euskal Herrian zehar ibiltzea aproposa zen bertsoen zabalkunderako. Bertsoak ahoz transmititzen zirenean, normalean, egokitu egiten ziren piska bat tokiko berbetara. Ahoz bezala idatziz ere zirkulatzen zuten, Bilbon sortu eta Tolosan argitaraturiko urbanoen bertsoak adibide (Zavala, 1991: 189-190). Kuriosoagoa da bertsoek Espainia eta Frantzia arteko muga gainditzen zutela ikustea: gipuzkeratik lapurterara egokituriko barianteak aurki daitezke Zavalaren lanean³. Izatez XX. mendera arte kantatu dira Iparraldean Karlistadetako bertsoak⁴. Eta jasotzeaz landa egin ere egin zituzten Iparraldeko euskaldunek Hegoaldeko gerrari buruzko bertsoak. Halandaze muga politiko-administratiboak eta dialektalak zeharkatzen zituen iturri baten aurrean gaude. Horregatik, bertso bateko informazioa aurrenik bere egileari eta horren lurraldeari badagokio, bestalde, antzeko egoeran zeuden euskaldun guztiarentzat, hots, maila sozial edota bando berekoentzat, estrapolagarria izango da.

1.6. Bertsoen iturriak

Amaitzeko hitz bi lan honetarako baliatu ditugun bertso eta transkripzioen gainean. Gorago esan bezala, Antonio Zavalaren liburua darabilgu iturri nagusitzat. Lehen karlistadako eta ondoko urteetako berrogeita hamar bat bertso sail dakartzatza, bakoitzaren aldakiekin eta komentarioekin. Bertso guztiak grafia gaurkotuan ematen ditu («k», «ge», «gi», ...), batik bat bertso-paper zaharrei aldatuz grafia. Iturriak inolako eraldaketarik gabe erakustea hobe den arren, Zavalaren berridazketak ez du funtsezko ezer ukitzen. Gainera jatorrizko ezaugarri fonetikoak mantendu egin ditu: «h» soilik Iparraldeko bertsoetan, «ñ» edo «ll» bustidura adierazkorra izan ez arren, «argiya» bezalako fonetismoak, e. a. Beraz transkripzio egokiak dira eta bere liburuan datozen bezala kopiatu ditugu.

2. Bertso hauen ahozko bertsioak bata bestetik hain urrun dauden Abadiño (Bizkaia) eta Errenteria (Gipuzkoa) bezalako lurraldeetan agertu dira (Zavala, 1991: 309-312).

3. Honen adibide da «Aieteko Burruka» izeneko bertso-saila (Zavala, 1991: 219-228).

4. Piarres Xarritonek erraztu digu informazio hau.

Zavalaren lanetik kanpo, *Cancionero popular carlista* izeneko liburuxkan (Baleztena, 1957: 6-7), ustez Zazpi Urteko Gerrakoak diren bi bertso-sail topatu ditugu. Nahiko problematikoak dira. Gerra hartakoak izatekotan, ia seguru bigarren karlistadan berreginak edo oso eraldatuak izan zirela. Agian, besterik gabe azken gerra horretan egin ziren. «Tiro eta tiro» kantu ezaguna ere badakar delako *Cancionero* horrek. Kantu hau ere, zein gerra karlistatan sortu ote zen? Edozein kasutan laburtzua da eta ezin informazio larregirik atera bertatik. Kantu honen aldaera bat Caro Barojaren *Etnografía Histórica de Navarra*-n aurki daiteke, bai eta garaiko beste bertso pare bat ere (1972: 177-181). Azkueren *Cancionero Popular Vasco* klasikoan, lehen karlistadakoa ei den bertso solte bat aurkitu dugu⁵. Baina aurrerago ikusiko dugunez litekeena da hurrengo gerrakoa izatea. Agirreazkuena-garen lana (1990: 507-572), Zazpi Urteko Gerraren bueltako bertsoen eranskinarekin, Zavalari eskapatu zaion lan urrietako bat da. Hala ere, Agirreazkuenagak, Zavalak ezagun duen Haritschelharren lana (1978) darabil neurri handiz, eta bertako bertsoak *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak* liburuan jasoak ditu. Hortaz, Agirreazkuenagaren bilketatik bizpahiru bertso gehiago baino ezin atera ditzakegu. Hola bada, han-hemenka aurkituriko bertso hauek Zavalari hartutakoei erantsiko dizkiogu, nahiz ikerketaren *corpus* nagusia azken honek eskaintzen digun.

1.7. Lan metodologia eta informazioaren aurkezpena

Lan-metodologia xede honen arabera egin da: gai desberdinak harturik, horiei buruz bertsoek zer dioten ikusi da, iritzi bakoitza fitxa batean jarriz, ematen duenari buruzko datuekin batera (bertsogilea karlista edo liberala zen, ikasia ote zen ala ez, zer urtetako bertsoa den, e. a.). Hola, datu guztiak bildurik, taldeka aztertu ditugu. Beraz, bertsoen multzo zabaletik, interesatzen zaizkigun auziei buruz diharduten bertso zatiak aurkitu eta sailkaturik ipini ditugu. Jatorrizko bertso horien ondoan azalpen laburrak dakartzagu. Modu horretan jakin nahi dugun auziaren gainean, bertsoek (gure ustez) diotena argiago erakusteko. Iruzkin horietan irakurleak ez du izugarritzko errebelazio luze eta mamitsurik aurkituko: bertsoek esaten dutena ulertzen eta azaltzen saiatzen gara, ez besterik. Eta bertsoek eskaintzen duten informazioa oso laburra eta iluna izan daitekeenez, euren iruzkinak ere maiz mugatuak dira. Gure interpretazioak zuzenak direlakoan gaude, baina beti gogoan izan behar da, jatorrizko informazioa azalpen horietan barik transkribaturiko bertsoetan dagoela.

Laburbilduz, bertsoak ikusi nahi ditugun auzien arabera ordenatu, euren testuingurua eman (data, egilea, maila soziala, bandoa, arrakasta...) eta bertsoaren edukia argiago azaltzen saiatu gara. Hemen aztergai ditugun gai konkretuak foruen eta erlijioaren ingurukoak dira. Horien gainean bertsoetan zer agertzen den batu eta ondoren gisa honetako aspektuak ikusi ditugu: maila apaleko karlisten bertsoetan zelako erlijiotasuna agertzen zen, liberalen bertsoetan foruen defentsarik egiten ote zen, e. a. Horrela ondorio batzuk atera ahal izan ditugu. Ikus dezagun.

5. Bertso hori Txillardegik bere lanetan aipatu izan du eta berak eman digu iturriaren berri.

2. Foruak

Hasteko esan beharra dago oso gutxi direla foru edo lege zaharren ideia aipatzen duten bertsoak. Proklama monarkiko edo bestelakoak askozaz maizago agertzen dira. Alta, lege zaharrak gutxi azalduagatik nahiko antzeko terminoetan egiten du. Beraz, koherentzia duen kontzeptua da, ondoren ikusiko dugunez.

2.1. Hirurteko Liberaleko aurrekaria

Abiapuntu bezala gatazka hasi baino hamar urte lehenagoko lekukotasun bat dugu. Jakina denez, Hirurteko Liberalean (1820-23) gero gerra karlistan agertuko ziren bandoak aurreirudikaturik zeuden.⁶ Euskal Herrian zenbait partida absolutista altxatu zen eta populazioaren gehiengoa konstituzionalismoaren aurka agertu zen. Hala 1823an, liberalak garaituak izan zirenean, ospakizun bat egin zuten Markina, Xemein eta Etxebarri Bizkaiko herriek, hiru bertso-sail idatzirik utziz. Bertso hauek pertsona eskolatu batek egin zituen, seguruenik apaizen batek⁷. Bertan beste gauza askoren artean foruei buruzko aurreneko erreferentzia aurkitzen dugu:

Kinta ta milizijak
lantzian ta sarri,
ez deusku euskaldunoi
lan txarra ezarri.
Agur gure forubak,
agur noblezia,
koldaturik balego
emengo jentia.⁸

Gogoratu beharrekoa da Hirurteko Liberalean, foruak indar gabe egon zirela. Horren ondorio ageri bat euskaldunak soldadutzara joan beharra izan zen, bertsoek esaten diguten legez. Egoera foralaren deuseztatzea «emengo jentia koldaturik balego» baino ezingo litzateke gertatu. Eta ez dirudi hori zenik giro nagusia:

(...)
Gurasuen legia
ez dau batek saldu,
lenago zar ta gazte
bizitzia galdu⁹

eta

6. Hirurteko Liberalean Cadizko Konstituzioa jarri zen indarrean. Gizarte-talde batzuk (behe eliza, jauntxoak, nekazariak...) erregimen liberal horren kontra egin zuten eta zenbait lekutan mendira jo zen. Talde antiliberal horien eta hurrengo hamarkadako karlisten artean lotura zuzena dago (cf. Pérez Ledesma, 1996: 134).

7. Antonio Zavalak (1992: 42) egilea Juan Jose Mogel (1781-1849) izan zitekeela dio, garai hartan bertako errektorea izan baitzen.

8. *Konstituzinoeko damiaren asmuak zortzikuan*, 11. bertsoa. Zavala (1992: 27).

9. *Markina Xemein ta Etxebarrik (...)*, 27. bertsoa. Zavala (1992: 21).

Euskaldun garbi sendo
prestu ta nobliak,
gorde gura ditubez
asabeen legiak.
Mutillak orretako
armetara dira,
zarrak bere nai leuke
gaziak balira.¹⁰

Beraz lege zaharrak gordetzearen aldeko jarrera ageri da, eta are armekin defendatzekoa. Honen arabera, foruen abolizioaren arriskua present egongo zen jendearengan eta hortaz karlistada hastean altxamendu armatua bultzatu zuen faktoreetako bat izango zen.

Ohar egitekoa da, edozelan ere, aipatzen den terminoa ez dela «foruak» baizik «asaben» edo «gurasoen legea». Ildo beretik gerra karlistan egindako bertsoetan ez da ia «foru» berba agertzen, baina bai «arbasoen lege» ideia antza duten espresioak, hala nola, «lehenko legeak» edo «leheneko legeak». Jo dezagun bada 1833tik aurrerako bertsoetara.

2.2. «Leheneko legeak» karlistengan

Gerra hasi eta hurrengo urtean, Amezketako errektoreak bertso-paperak egin zituen karlisten alde. Liberalen aurkako salaketan artean, birritan egozten die legeak haustea:

(...)
[Kristinoak dabilta]
lege zuzen guztiak
urraturik arras,
beren errege ona
pasa nairik balaz¹¹

eta

(...)
Bide gabe austeko
leneko legeak,
zer gaitz egin dizute
Carlos erregeak?¹²

Lehen bertsoan ezin segurta daiteke zein legez ari den (foruei zein lege salikoari erreferentzia egin diezaioke). Bigarren bertsoan «leneko legeak» dio. Bertso hauek gorago ikusi ditugunak bezala pertsona ikasi batek eginak dira. Baina segurta daiteke «leneko lege» kontzepzioa herritarra zela. Hola 1837 edo 1838ko bertso karlista batzuetan hitz ia berberak berragertzen dira:

10. *Konstituzinoeko damiaren asmuak zortzikuan*, 15. bertsoa. Zavala (1992: 28).

11. *Ikusirik bertso berriak, egia garbiak (...)*, 6. bertsoa. Zavala (1992: 172).

12. *Ikusirik bertso berriak, egia garbiak (...)*, 7. bertsoa. Zavala (1992: 174).

Ari dirade lanian
Frantzian eta Españan
egiteko onen gañian:
lau probintziak utzi itzazute
lengo lege zuzenian,
ez erdaldunaren mendian,
gauzak lenengo oñian;
ala bearko dik atzenian.¹³

Bertso hau bere saileko kideekin, maila apaleko herri-bertsolariren batek egin zuen. Oso-oso ezagunak izan ziren bere garaian eta horrek bertako ideien onespren zabala segurtatzen digu. Ikus daitekeenez bertso honek «lengo lege» kontzeptua dakar. Lege «zuzen» hori errespetatzeko eskatzen da, eta gauzak hasieran zeuden bezala uzteko («lenengo oñian»). Hemen ere, hitzon esangura erabat argitu gabe dator, baina «lehenengo lege» ideiak araudi zaharrarekin lotura iradokitzen du. Zer dira orduan «lehenengo» edo «leheneko legeak»? Foruen sinonimotzat hartu behar al dira? Zail da zehazten, baina foruen ideia barne hartzen dutela ematen du, edo behintzat harekin loturan daudela. Areago bertso honek Hego Euskal Herriko lau probintziak zehazten dituenean. Zentzu horretan Muñagorriek 1838an eginarazitako bertso batzuetan zera aurkitzen dugu:

Bear ditugu Juntak
eta alkateak,
lenengo lege zarrak,
uso, kostunbreak;
(...)¹⁴

«Lenengo lege zarrak» espresioko lehen zatia, hots «lenengo lege», gorago ikusi dugun «leneko lege» edo «lengo lege» adierazpideekin identifika dezakegu.¹⁵ Halaber, azken bertso-lerro bietan, gaztelaniazko «*fueros, usos y costumbres*» esamoldea kalkatzen dela dirudi. Beraz bertso honetako «lenengo lege zarrak» hitz multzoa, «*fueros*»-en lekuan legoke. Hala bada, «leheneko/-ngo legeak» aipatzean zehazki foruez dihardutela ematen du. Hala ere gauzak ez bide dira hain sinpleak: bertso hau idatzi zuena pertsona ikasiren bat zen, eta berak dudarik gabe foruen zentzu bera ematen dio «lenengo lege zarrak» espresioari; baina baliteke jende apalarentzat «lehenengo lege» hitzen esangura zertxobait difusoagoa izatea eta ez hain argiro foruen sinonimoa. Mentalitateetan ohikoa da kontzeptu bakoitza erabat bereizi barik multzo batean bildurik agertzea. Eta foruekin horixe gerta zitekeen. Garaiko zenbait testigantzak dioenez, jende arruntak ez zuen ideia erabatekorik foruez¹⁶. Baina euskal herrialdeak antzinako lege batzuen jabe izatearen nolabaiteko kontzientzia egon behar zen. Batez ere lege horiek ageriko ondorio praktikoak zituztenean (soldadutzara joan behar eza, elikagai merkeagoak inportatzeko auke-

13. *Umieta*, 6. bertsoa. Zavala (1992: 282).

14. *Muñagorriren kantak II*, 16. bertsoa. Zavala (1992: 343).

15. Esangura aldetik «le(he)ngo» eta «le(he)neko» guztiz sinonimotzat har daitezke. «Le(he)nengo» apur bat desberdina da beste biengandik baina oso antzeko ideia ematen du aditzera eta fonetikoki besteekin nahas daiteke. Hortaz uste izatekoa da hiru formek baliokide gisa zirkulatu zutela.

16. Henningsen kazetariak zioenez foru hitza ezaguna zen tropa karlistentzat, baina ez zekiten zehatz definitzen. Halaber ezaguna da Iparragirrek karlista denboran forua zer zen ez zekiela adierazi zuena (cf. Estornes Zubizarreta, 1976: 23 edo Ugarte, 1991: 274).

ra, e. a.), eta Hirurteko Liberalak foruak galtzearen ondorioak esplizituki ikusteko aukera eman zuenean (cf. Fernández de Pinedo, 1974: 463-472; Agirreazkuenaga-Ortiz de Orruño, 1990: 175-177). Hortaz, «leheneko/-go lege» kontzeptuak ideia orokor hori adieraz zezakeen, hau da, sistema zaharra, haren araudiarekin eta inguruan antolaturiko bizimoduarekin. Aurrerago Muñagorriren bertsoetara itzul-tzean, ostera ere ekingo diogu honi.

Esanahi zehatzaren kontua utziz, «lehenengo legeen» ideia karlisten artean ezaguna zela esan daiteke. Hala ere modu agerian oso bertso karlista gutxitan azaldu da. Baina nahiko goizetik agertzen da, jada 1834an, 1823ko aurrekariak. Gero 1838ko bertso herrikoietan berragertzen da, kontzeptuaren izaera popularra bermatuz. Bertsoek diotenak ere koherentzia erakusten du: liberalei lehenengo legeak hautsi izana egozten zaie eta euren berrezarpena eskatzen da. Hala bada, lege horien defentsa, esplizituki asko proklamatu ez arren, tropa karlisten gogoetan zegoen. Ikusi ditugun bertso karlistei ondokoa gehi diezaiokegu:

Don Carlosek emon dau
errege-berbea, errege-berbea:
gura dabela gorde
euskaldun legea.

Bertsoa Azkuek bere *Cancionero*-an jasotzen du (1990: 8), lehen karlistada-koa dela adieraziz, baina iturri zehatzik aipatu gabe. Bertso sail batean ote zegoen ere ez da azaltzen. «Euskaldun legea» esamoldeak, erabat herritarra ematen du, maila ofizialean antzekorik gabea. Parekotasunik izan dezake gorago ikusi dugun bertso batean, hau da, lau probintziak «lengo lege zuzenian, ez erdaldunaren mendian» uzteko eskatzen zuen hartan¹⁷. Azkueren bertso hau lehen karlistada-koa bada, gorago azaldutako errebindikazio foral herritarraren adibide bat gehiago litzateke. Halaber lege horiek izendatzeko modu berezia ere azpimarratu beharko genuke, foruei esleipen geografiko-etnikoa ematen baitzaie. Baina bertso hau Zazpi Urteko Gerrakoa barik bigarren karlistadako izan liteke, 1869ko bertso-paper batean pareko zuzena baitu: jakina, bertso-paper horrek lehen karlistadako bertso bat jaso dezake, baina litekeenagoa ematen du Azkuek batutakoa pertso-paperaren ahozko bertso bat izatea.¹⁸

2.3. «Leheneko legeak» liberalengan

Bertso karlistetan ez eze, liberalen artean ere agertzen dira «leheneko legeak»:

17. Esaldi horrek irakurketa bi ditu: bata, lau probintziak ez uzteko (tropa edo agintari) erdaldunen menpe, eta bestea, lau probintziak ez uzteko erdaldun legearen menpe. Azken kasu honetan erdaldun legearen *alter ego*-a euskaldun legea litzateke, aztergai dugun bertsoak dakarren terminoa alegia.

18. 1869ko bertso-papera, *Zortziko barridak* izenekoa, Bizente Egileor ikasiak paratua dela ematen du, eta asko zabaldu omen zen garaian. Hogei bertsoetik gorako sail bat da eta hogeigarrenak honela dio: «Don Carlosek emon dau / errege berbia, / gura dabela gorde / Jaunaren legia. / Izaten bada errege / Bere Mesedia, / sendatuko da Españan / Kristoren fedia.» (Zavala 1997: 172). Ez da dudarik ikusi duguna eta hau bertso berbera direnik. Azkuek dakarren aldaera, «euskaldun lege»-rekin «Jaunaren lege» ordeztu, bigarren gerra karlistan herritarrek sortutako aldakia izan liteke, euskal soldadu karlistek foruekin hartu zuten inplikazioa erakutsiz. Baina kasu horretan ez litzateke baliagarria aztertzen ari garen garairako.

Txuri ta beltzik bage
leneko legean
guztiok bizi giñan
glorijan pakean;
(...)19

Eta beste bertso sail batean:

Euskaldun prestu, leial,
beldurrik bageak
badakite gordetzen
leneko legeak;
beren guraso onak
antziña pareak,
(...)20

Liberalek ere «leheneko legea» defendatzen ote zuten? Bertso hauei begirata pentsa liteke baietz. Baina kontuan eduki behar da bertso paper hauen nondikoa. Ez dira bereziki euskaldun liberaleri zuzenduak, aitzitik esan daiteke karlistak erakartzeko eginak direla. Aurreneko bertsoa, 1838koa, Bizente Etxegarai liberalak paratua da, karlista damutu baten gogoetak bailiran. Berradiskidetze-tonuan egina dago («txuri ta beltzik bage»), gerra amaituz gero lehengo egoera eta legeak berreskuratuko direla aditzera emanaz. Zentzu horretan, «leheneko legean» erreferentzia karlisten aldekoatasuna lortzeko jarria izan daiteke. Gogoratu behar da euskal liberal moderatuek foruak mantentzeko promesa erabili zutela gerraren amaiera bultzatzeko. Hurrengo bertsoa ere bide beretik doa. Bergarako besarkada ostean idatzi zen. Bertso honen sailean alaitasun-giroa da nagusi lortutako bakeagatik. Eta testuinguru horretan «leheneko legean» gainean egiten den goraiapemena, beharbada, bake horrek lege zaharrak errespetatzen zituela jendeari erakutsi nahian egin zen. Hau hola balitz, lehengo legeei buruzko apologia horiek, liberalen beren ideiak baino gehiago, karlisten ideiak islatuko lituzkete. Ez da baztertu behar baina, euskaldun liberalak lege zaharren aurrean jarrera positiboa izatearen ondorio ere gertatzea. Azken finean, gerrak aurrera egin ahala euskaldun liberalak foruak konstituzioarekin uztartzeko asmoa agertzen zuten. Datu gehiagorik ezean gauzak horretan utzi beharko.

2.4. «Foruak» vs. «leheneko legeak»?

Eta zer gertatzen da «foru» berbarekin? Ez al da gerrako bertsoetan zehar behin ere agertzen? Bai agertzen da, baina soilik Muñagorriren errebindikazioen inguruan²¹. Muñagorri berastegiari eskribauak (1794-1841), itxuraz gerraz gogaiturik baina sekretuki liberal moderatuen estrategia garatuz, karlista eta liberalengandik aparteko bando bat sortu zuen. Talde horren xedea, bakearen truke liberalak

19. *Txapeltxuri euskaldun ernegatu baten (...)*, 6. bertsoa. Zavala (1992: 356).

20. *Pake pozgarriaren atsegin leloak zortzikoan*, 6. bertsoa. Zavala (1992: 366).

21. Bestalde *Cancionero popular carlista-k* (1957: 7) *Oriamandi*-ren euskal bertsiotzat dakarren kantuan ere agertzen dira foruak. Baina Wilhelmsen-ek (1995: 240) lehen karlistadakotzat duen arren, kantu horretako hitzek ez daukate inolako paralelorik garaiko bertsoetan. Aldiz oso bat datoz XIX.aren erdialdetik eta bereziki bigarren gerra karlistan garatutako foruzaleatasun euskaltzalearekin. Beraz ia seguru Zazpi Urteko Gerra ostekoa direla. Pasarte esanguratsuenak zera dio: «Maite degu Euskalerrria, / maite bere fuero zarrak, / asmo ontara jarriz daude / beti karlista indarrak.»

foruak errespetatzean oinarrituriko akordio bat lortzea zen. Muñagorritar bandoa karlista eta liberal desertorez osatua zegoen, baina arma nagusia propaganda zuten, herritar karlistei kausa dinastikoa baztertzeko deiak eginez. Muñagorrik agiri ezagun bat plazaratu zuen 1838an gaztelaniaz «*paz y fueros*» lemarekin, eta ideia horiek euskaldunen artean hobeto zabalatzeko bertsoan jarrarazi zituen. Hola hiru bertso-sail agertu ziren. Guztietan behin eta berriro azaltzen dira foruak: zer ziren, beren jatorrizkotasuna, nolako eskubideak ahalbidetzen zituzten, euskaldunen errebindikazioa foruetara mugatu behar zela, e. a. Ez ditugu hemen transkribatzen asko direlako eta beren mezu foruzalea ohikoa delako, aparteko berezitasunik gabe euskaraz egonagatik (ikus Zavala 1992: 329-345). Muñagorriren ahalegina, errebindikazio karlisten multzo nahasitik foruena apartatzea zen, jendeari benetan merezi zuen borroka horixe zela azalduz. Foruak esplikatu beharrak euskaldun herriak horiei buruzko ideia garbirik ez zuela pentsarazten du. Eta herritarrek «leheneko lege» esatean «foru» baino gauza zabalagoren bat esan nahi zutela, nahiz seguruenera forua ere barne hartu. Adierazgarria gertatzen da «lau probintziak utzi itzazute lengo lege zuzenian» zioen bertso karlistaren sail berean, Muñagorriren aurkako kritikak agertzea:

Jaun onen ofizioa [Muñagorrirena],
ai zer esplikazioa,
iruri du Misioa.
«Biba fueroak eta pakea!
Akabo okasio!».
Au da orren desioa:
aplakatu desioa
eta egin konposizioa.²²

Berba latz hauek hain gerra bortitzaren ondoren bake erraz bat predikatzeraz zetorren Muñagorrienganako amorruek eraginik esanak egon zitezkeen. Baina gutxienik deigarria gertatzen da, «lehenengo legea» errebindikatzen zuenari gaizki iruditzea Muñagorrik eskatzen zuen «bakea eta foruak». Honek zera pentsarazten du, soldadu karlistek foruak baino zerbait gehiago nahi zutela (errebindikazio erlijioso, dinastiko edo bestelakoak). Litekeena da halaber «lehenengo legeak» eskatzean ere, foruak baino zerbait orokorragoa adierazi nahi izatea. Zerbait orokorrago hori, Antzinako Erregimenean foruek inplikatzeko zuten bizimodu tradizional osoa izan zitezkeen, «gauzak leneko oñian» berrezarri nahia agertu baitzaigu. Ideia hau ez da berria. Hainbat autorek garaturiko hipotesiaren arabera euskal karlismo herritarrek defendatzen zuena liberalismoak arriskuan jarritako bizimodua zen. Eta bizimodu hori ahalbidetzen zuen oinarri politiko-administratiboa, forua izanik, jendearen kezken artean bide zegoen.

Foruaren errebindikazio eta pertzepzioa bada, herritarren ikuspegi partikular horren arabera taiutzen zen. Pertzepzio berezi horren isla, hitzetan bertan ikus daiteke, «foru» barik «leheneko lege» eta antzekoak erabiltzen ziren eta.

22. *Urnieta*, 11. bertsua. Zavala (1992: 284).

3. Erljioa

Foruak sistema tradizionalaren sustengu materiala baziren, erljioa zen euskarri morala. Eta jakina denez karlismoak elizaren defentsa bere banderetako bat bihurtu zuen. Herri karlistaren motibazio erlijiosoak ez ditu inork zalantzan jartzen. Bai aldiz motibazio horren norainokoa. Euskaldun karlistak fededun fanatikoak ote ziren? Ala erlijiotasuna puzturik agertu da eskriba gehienak elizkoiak eta eliztarrak izateagatik? Eta zer esan euskaldun liberalez?

Gai honi buruz bertsoak oparagoak dira foru edo leheneko legeez baino. Gainera apaizek egindako bertso-paperez gain herri bertsolarienak ere dexente dauzkagu. Beraz talde desberdinen iritzia kontrastatzeko aukera izango dugu.

3.1. Eliza karlisten altxamendua bultzatzen

Ezagun da elizgizonek liberalen aurkako altxamendua sustatu zutela. Ideia hau hainbat bertsoan aurki daiteke. Hala 1834 aldeko bertso-paper liberal batean zera irakur daiteke:

(...)
Gelditu beziñ laster
Cristina alargun,
bere kontra zituan
milla bat korodun [=apez].²³

eta jarraian:

Izan bear zutenak
on pakeosoak
«gerra, gerra!» diote
lendabizikoak;
jarraitzen ditzatela
erritar eroak,
mendira irten dira
txit odolgiroak.²⁴

Hortaz, Tolosan argitaratutako bertso hauen arabera elizgizonek Cristinaren aurka jarri eta gerrarako deiak egiten zituzten, beren predikamenduekin herritarrak mendira bultzatuz. Gerra bukatu osteko oiartzuar bertso-sail batean ere ideia bera aurkitzen dugu. Nagusi eta maizter karlisten arteko elkarrizketa gisa antolatutik daude bertsoak. Nagusiak dio:

Zori gaiztoz etorri
zaigun gerratia,
oroitu bearra duk
ziñez jendia.
Au sortu zuenaren
deabruz betia,
naiz dala apaiz eta
igual frailia.
(...)²⁵

23. *Egia arrigarriak zortzikotan, sinestagarrian* (...), 2. bertsoa (aldakia). Zavala (1992: 132).

24. *Egia arrigarriak zortzikotan, sinestagarrian* (...), 3. bertsoa. Zavala (1992: 113).

25. *Nagusiya eta morroia*, 3. bertsoa. Zavala (1992: 361).

eta aurreratxoago morroiak:

lñola ez genduben
nai gerrara sartu,
fuerzan gaituzte, jaunak,
onetaratu.
Aiek makillaz jo eta
beok predikatu,
modu ontan gaituzte
sekulako ondatu.
(...)26

Bertso-sail hau ez dago argi bando karlistakoa izandako batek gerraz nekatu-
turik idatzi zuen, ala liberalen batek. Edozein kasutan bertso desberdinetan heldu
zaigunez, arrakastaz zirkulatu zuela ematen du. Hortaz bertsoetan baieztatu
egiten da eliztarren inplikazioa herritarrak xaxatzen.

3.2. Apaiz eta karlista ikasien bertsoak

1823ko Markina, Xemein eta Etxebarriko bertsoetan, jadanik agertzen dira
liberalen aurkako erlijio-salaketak:

Abade gitxi eta
euren gisakuak,
arrozturik betiko
leengo legekuak,
(...)27

Agur beti-betiko
monja ta frailiak,
malkuak bota arren
jente ta pobriak.
(...)28

Bertso hauetan elizgizon eta monjak egoztea salatzen da (herritar apalen
gogoz kontra) eta onesten den klero urria liberala izatea. Ohargarria da «leengo
lege» agertzea hemen ere; ez noski «foru» esanguraz baina bai gorago proposatu
dugun tradizio edo aurreko arau zentzuan uler daitekeena.

Markina, Xemein eta Etxebarri bertso-sortako hirugarren saila, «Ama Dontze-
lliari zortzikua» izenekoa (Zavala 1992: 31-37), askozaz apokaliptikoagoa da.
Espainiaren izaera kristauaz eta Ama Birjina bere patroiar dion debozioaz dihardu.
Baina Luziferrek Espainiaz jabetu nahi duela eta horretarako liberalak darabiltzala
dio. Ustez Markinako parrokoak egindako bertso hauetan, dena dela, ez da gerra
santura joateko edo antzeko deirik agertzen.

Behin Zazpi Urteko Gerraren baitan, 1834ko Juan Inazio Urreta Amezketako
erretorearen bertsoak ditugu esanguratsuenak. Herri-mailatik nahiko hurbil zebilen

26. *Nagusia eta morroia*, 6. bertsoa. Zavala (1992: 362).

27. *Konstituzinoeko damiaren asmuak (...)*, 9. bertsoa. Zavala (1992: 26).

28. *Konstituzinoeko damiaren asmuak (...)*, 10. bertsoa. Zavala (1992: 27).

elizgizona zen, eta bere bertsoek diotena ez bide zen oso desberdina garaiko herrietako apaizen predikuetatik. Liberalei honakoak aurpegiatzen dizkie:

Relijio santuaz
burlaturik farraz,
kristino beltzak dabiltz
arroturik galaz;
(...)²⁹

eta

Beltzen religioa
klaro degu ikusi:
lasaikeria libre,
konbentuak itxi;
esaten dute ala
obe dala bizi,
gogoratzea ere
ez deditzat gutxi.³⁰

Gatazka hartan liberalek erlijioari eraso egiten ziotelako ideia Ipar Euskal Herriko elizgizonek ere adierazi zuten: Jean-Baptiste Camousarry ziburutar apezak Zumalakarregiren omenez egindako bertso batean «fedea bera dago hurrisku handitan» dio³¹. Elizgizonek liberalen erlijioaren aurkako erasoak salatzen bazuten, karlista laiko ikasiek Jainkoa euren bandoaren alde egotea azpimarratzen zuten. Argiro tropei zuzendutako bertso-sail batek holaxe dio:

Zubek asi zenduben
gerra odoltsuba,
bakarrik lagun zala
Jaungoiko altsuba,
(...)³²

Zerubari eskerrak,
euskaldun maitiak,
berak sendatu ditu
zuben egitiak.
Beragan daukazubez
garaitza guztijak,
daben legez esango
guda onen amaijak.³³

Imiñi bada laster
bere jarlekuban [don Carlos],
eskribiturik dago
alantxe zeruban:
«Alperrik amorratu

29. *Ikusirik bertso berriak (...)*, 6. bertsoa. Zavala (1992: 172).

30. *Ikusirik bertso berriak (...)*, 4. bertsoa. Zavala (1992: 172).

31. *Zumalakarregi*, 31. bertsoa. Zavala (1992: 196).

32. *Karlistenak*, 3. bertsoa. Zavala (1992: 295).

33. *Karlistenak*, 20. bertsoa. Zavala (1992: 300).

gutziz infernuba,
etsi daike benetan
auzija galduba». ³⁴

Bizkaierazko bertso hauek 1837koak dira, hots, gerrako bost urte igaro eta nekea nahiko handia bide zenekoak. Testuinguru horretan kokatu behar direla uste dugu, soldadu karlistei aurrera jarraitzeko animozko dei hauek. Karlistak Jainkoaren laguntzaz dihardutela ematen du aditzera, eta azkenean, Carlos erregeak tronua eskuratzea infernuko indarren gaineko garaipenarekin parekatzen du. Alta, ez da pentsatu behar bertso-sail osoa eskatologikoa edo denik. Zeruari erreferentzia egiten dioten pasarteok bestelako exaltaziozko proklamekin tartekaturik datoz, karlisten ausardia eta kemena gorai patuz. Ematen du, hain latza gertatzen ari zen gerran, Jainkoaren aldekotasunaz borrokatzen zirela gogorarazi nahi zitzaizela karlistei. Zentzu horretan, karlismoa besteak beste fedearen aldeko mugimendua zela, islatuko lukete bertso horiek.

3.3. Liberalak antiklerikalak?

Karlismo ofizialak erlijioaren defentsa aldarrikatzen zuela ikusi dugu. Horren aurrean nola erantzuten zuten liberalak? Euren bertso paperetan iritzi desberdinak aurki ditzakegu. Gaspar Jauregi «Artzaia» gipuzkoar jeneralak eginarazitako bertso-sortan zera esaten da:

Deitzen duten fedea
ezagutu gabe,
erlijio santuaz ez degu
zer galde;
(...) ³⁵

eta

(...)
alde bat utzirikan
fede on guziak
zuen odolaz daude
kasakaz jantziak ³⁶

Karlistei bada, fedea benetan ez defendatzea eta haren aitzakiaz baliatzea egozten zaie. Gainera esaten du kristinoek ez dutela ezer erlijioaren kontra («erlijio santuaz ez degu zer galde»). Kontuan eduki behar da edonola ere, bertso hauek espezifikoki karlista euskaldunei zuzendurik egin zirela, eta hortaz karlistak erakartzeko kontzesio bat izan zitekeela, liberalen pentsakera barik. Horrela, liberalen beste bertso batzuetan, Elizaren eta karlismoaren arteko elkartasuna salatzen da. Jose Bixente Etxegarai bertsolari liberalak, aliantza hori salatzeaz gain, antiklerikalizat har daitezkeen burlak egiten ditu:

34. *Karlistenak*, 24. bertsoa. Zavala (1992: 301).

35. *Don Gaspar de Jauregik bere anaia euskaldunai zortzikoetan*, 4. bertsoa (aldakia). Zavala (1992: 132).

36. *Don Gaspar de Jauregik bere anaia euskaldunai zortzikoetan*, 7. bertsoa. Zavala (1992: 128).

Carlosen kontsejari
jakintsu bakarra,
Abarka obispoa,
jeneral azkarra;
Eleizaren abea,
fedeko indarra,
bedeinkazioakin
egiten du gerra.³⁷

Carlos iltzen daneko
gordetzen fedea,
aurreratua dago
bere aldea;
Abarkak garbitua
zeruko bidea,
requiescant in pace
apaiz erregea.³⁸

eta beste bertso sail batean:

[Karlitek] Esku batean dute
Kristo gurutzean,
odola dariola
ezpata bestean,
ai, ai, ai, biyetan
beti odoletan.³⁹

Liberal ikasi gehiagorengan agertzen dira antzeko kritika zuzenak. Jada ikusi dugu 3.1. puntuari, 1834ko bertso batek apaiz asko Cristina erreginaren aurka zeudela salatzen zuela («bere kontra zituan milla bat korodun»). Sail horretan Eliza berari buruz, «Roma aldetik fedea, sutunpak [=kainoiak] ta bolborea» esaten da (Zavala, 1992: 118). Zelangura ere, Elizaren aurkako jarrera ageriegiek ez bide zeukaten liberal guztien artean harrera onik. Interesgarria da Zavalak bertso-paper horretako aldaki baten gainean egiten duen oharra: bertso batek «Gelditu beziñ laster Cristina alargun bere kontra zituan *makiña bat lagun*» dio⁴⁰ eta besteak gorago aipatutako «*milla bat korodun*». Zavalak dioskunez (1992: 132), jatorriz, «bertso-jartzailleak onela idatziko zuan. Gero kejak izango ziran eta eztenkada ori kendu». Beraz Elizari dagokionez liberalen artean jarrera desberdinak zeudela ematen du.

Bestalde, liberalek behin eta berriro erabiltzen zituzten eredu kristau-katolikoak. Esate baterako Gaspar Jauregik paraturiko bertso sailean Cristinaren apologia egiteko Ama Birjinaren motiboa erabiltzen zuen.⁴¹ Eredu hauek, are antikleri-

37. *Carlos bostgarren errege deitzen danari euskaldunak zortzikoa*, 11. bertsoa. Zavala (1992: 250).

38. *Carlos bostgarren errege deitzen danari euskaldunak zortzikoa*, 12. bertsoa. Zavala (1992: 252).

39. *Txapeltxuri euskaldun emegatu baten (...)*, 5. bertsoa. Zavala (1992: 356). Sail honetan bertan, oso argia ez den esaldia irakur daiteke: «fedea da beltzaren odol egarria» (4. bertsoan). Edozein kasutan karlisten erlijiotasunaren aurkako kritiken ildoan dagoela dirudi.

40. *Egia arrigarriak zortzikoan, sinestagarrian (...)*, 2. bertsoa. Zavala (1992: 113).

41. «[erregina] da dudarikan gabe / amarik onena, / edo esan dezaket / beintzat bigarrena; / lenbizikoa baizan / Maria Birjiña, / jarraitzen diona da / Maria Cristina». *Don Gaspar de Jauregik (...)*, 11. bertsoa (aldakia). Zavala (1992: 132).

kal agertzen ziren bertsolari liberalengan aurki daitezke. Hala, 1834ko sailean, bertsoez gain «Sinestagarria» izeneko testu bat dago, Kredoaren egitura kalkatuz ideia liberalak dakartzana: «Nik sinisten det Isabel bigarrenagan, erregiña poderosa almen aundikoa, Españaiko zorientasuna, zeña kontzebitu zan Fernando zazpigarrenaren obraz, (...)» (Zavala, 1992: 117). Gerta liteke hala ere, erabilera hau irreberentea izatea. Kasu horretan autorearen antikerikalismoaren beste adibide bat litzateke. Baina elizarenganako kritikak egonik ere sekula ez da fede gabeziarik agertzen: sail bereko beste bertso batean Maria Cristina Jainkoak bedeinka dezala eskatzen da⁴².

Ondorioz esan daiteke liberal ikasien artean Elizaren aurkako salaketekin batera, erreferentzia erlijiosoak maiz onartzen zirela, eta antikerikalismoa ez zela erabatekoa.

3.4. Herritar karlisten erlijiotasuna

Estamentu ofizial edo ofiziosoen iritziak ikusi ditugu. Aitortu beharra dago arlo horretan bertsoek ez digutela ezer bereziki berririk agertzen. Ideologia karlistak eta liberalak erlijioaren gainean zuten jarrera lehendik ere nahiko zehatz deskribatu da, agintarien dokumentazio ugariari esker⁴³. Ikasien bertsoak jadanik ezagun ziren ideia liberal eta karlista horien ildotik doaz. Lekukotza bat gehiago eskaintzen diguten heinean aberasgarriak dira, baina ez digute funtsezko ideia berririk erakusten. Ondoren, ordea, bestelako iturrietan gehiegi agertzen ez den aspektu bat landuko dugu: herri xeheak erlijioa nola ulertzen eta errebindikatzen zuen. Herritar karlista eta liberalek antzekotasunak agertzen dituzte. Karlistekin hasiko gara.

Erljioaren proklama, apaizen bertsoetan bezain sarri ez bada ere, agertzen da maila apalagoko karlisten artean:

Reljio santuak
asko du balio,
zuzen dabillenari
Jainkoak nai dio;
(...)⁴⁴

Hau 1835-36ko bertso paper gipuzkoar batean agertu da. Sail honetako bertsoak herri-pentsakeratik nahiko hurbil daudela ematen du, baina ez bide dira herri-bertsolari batenak, norbait ikasixeagoarenak baino.

Beste sail batean, euskarazko bertsoen artean «¡Viva la religión!» errepika tartekatzen da⁴⁵. Euskaldunek gaztelaniazko esklamazio bat botatzeak ez digu pentsarazten espontaneoki beraiei irteadako esaldia zenik, proklama ofizialen bat baino. Dena dela, erlijioaren defentsaren ideia asumitu egiten zela dirudi, bestela ez baitzuten esaldi hori errepikatuko. Eta badaude egon erabat herritartzat har dai-

42. «Bai gure biotzeko / Ama liberala, / esango det libreak / zugatik gerala; / eman diguzulako Karta Erreal, / guzcion Egilleak bedeinka zaitzala.» *Egia arrigarriak zortzikoan, sinestagarrian* (...), 12. bertsoa. Zavala (1992: 117).

43. Carlos V eta karlista nagusien pentsamendua erlijioaz (eta beste auzi batzuek) ikus Wilhelmssen (1995: 183-238).

44. *Bertso berriak*, 2. bertsoa. Zavala (1992: 159).

45. *Bilbaon egin dute*, Zavala (1992: 327).

tezkeen gisa horretako bertsoak. Adibidez, Zumalakarregi goraiatzeko, Azkuek Ataunen jasotako bertso batek «biotza prime dauka fedearengana» dio. Hortaz erlijiotasunaren defentsa garrantzitsua kontsideratzen zuten, birtute aipagarritzat jarri zuten eta. Gerra osteko «Lekarotz» nafar bertso sailean «odola il arteraño Jangoikoarendako» esaten da⁴⁶. Horren arabera gerra amaitu zenean behintzat motibazio erlijiosoak erabat asumituak zeuden. «Tiro eta tiro» kantu ezagunaren bertso batek zera dio:

Gu ez gera lapurrak
ez pantasiosuak,
fediaren aldeko
boluntariua[k]
Eta tiro (...) ⁴⁷

Hemen esplizituki aipatzen da karlistek fedearen alde zihardutela. Baina data arazoa dago: ez dakigu kantu hau Zazpi Urteko Gerrakoa den edo hurrengo karlistadakoa. Azken kasu horretan bere testigantza balio gabekoa litzateke.⁴⁸

Hauek dira erlijioaren defentsa esplizituaz aurkitu ditugun herri-bertso guztiak. Fedearen motibazioa karlista herritarren artean present zegoela bertsoetan baieztaturik geratu da. Hala ere, lege zaharrekin gertatzen zen bezala, badirudi ez zela maizegi aldarrikatzen. Beharbada herri-bertsoetan gertakizunen narrazioa gailen zelako gertatzen da hau, gerraren idealak azaltzea pixka bat bazterrean utziz. Hala ere, kontaketa horietan, herri-erlijiotasunaren adierazgarriak diren bestelako erreferentzia bat-batekoak daude. Horra:

Neure Ama Birjiñe
Arantzazukue,
baltzak erre dotzue
zuri komentue.

Baldin gelditzen bada
Bizkaian teillarik,
etzara zu egongo
komentu bagarik.⁴⁹

1834ko abuztuan Rodil jeneralak gidaturik, armada liberalak Arantzazu erre zuen eta fraideak preso hartu. Gertakari hark oihartzun handia izan zuen eta bertso oso ezaguna bihurtu zen aipatu duguna. Bizkaierazko eta gipuzkerazko aldaki mordoa sortu zen eta gutxienez Espainiako Gerra Zibilaren garaira arte ahoz iraun zuen. Elizari egindako eraso hori azpimarratzeak eta komentua konpontzeko asmoak karlisten motibazio erlijiosoa garbiro islatzen du. Baina aldi berean herrita-

46. *Lekarotz*, 10. bertsoa, Zavala (1992: 154).

47. *Tiro eta tiro*. Baleztena (1957: 14).

48. Foruak aztertzean aipatu dugun Oriamendiaren euskarazko kantua ere badakar Baleztenaren liburuak (1957: 6) eta bertan erlijioa aipatzen da: «Gora Jainko maite-maitea, zagun [sic] denon jabe [...] Gora Jainko illezkor!» Baina ikusi dugun bezala oso kantu problematikoa da hau, bigarren gerra karlistakoa seguruenik.

49. *Arantzazu*, aldakietako bat. Zavala (1992: 140).

rren debozioaren erakusgarria da. Hurrengo bertsoko paralelismoek argiago erakusten dute hau:

Birjiña Junkaleko,
Zeruko Printzesa,
zure etxian dago
sarturik inglesa;
(...) ⁵⁰

1837ko maiatzean tropa liberalek, aliatu ingelesen laguntzaz, Irun hartu zuten. Ingeles horiek, garaipena ospatzeko, Irungo zaindaria den Junkaleko Amabirjinaren parrokian sartu eta txikizioak egin zituzten. Horren berri ematen du hiriaren defentsan parte hartu zuen irundar karlista baten bertso honek. Bertso honetan zein Arantzazukoan elementu berdinak errepikatzen dira: lehenengo tokiko zaindarianako debozioa agertzen da («Birjiña Junkaleko Zeruko Printzesa» / «Neure Ama Birjiñe Arantzazukue»); ondoren gertatu zaion zoritxarra kontatzen («zure etxian dago sarturik inglesa» / «baltzak erre dotzue zuri komentue»). Gertakari hauek karlisten erlijioagatiko borrokan pizgarri izan zitezkeen. Baina bertsoen asmoa ez dirudi fedearen bandera altxatzea zenik. Aitzitik herritar karlisten erlijio-tasuna agertuko lukete. Testuinguru horretan ulertzen da Irungo bertso-sail horretan, liberalek bertsolari karlista preso daramatenean bertsolariak egiten duen agurra:

Au ura biotzeko
penaren tristia:
elkar ikusi eta
despeida ematia:
Adios Junkaleko
Birjiña maitia!
Iruditzen zitzaigun
orduban iltzia.⁵¹

Bertso-sail berean, Jainkoaganako erreferentzia berezkoak ere sarritan agertzen dira: «A zer despedida ona, gure Jaungoikua!» edo «an etzeguan besterik Jaungoikua lagun»⁵². Erlijio-tasunaren omnipresentziaren beste adibide bat daukagu Andoaingo 1837ko gudua kontatzen duen bertso karlistan. Borrokaldi hartan liberalak kokagune hobean egon eta soldadu gehiago eduki arren, ezusteko eraso bati esker karlistek erdietsi zuten garaipena. Andoaingo gudu hori, irailaren 14an, Gurutze egunean suertatu zen eta saila irekitzen eta ixten duten bertsoek haren laguntzari egozten diote garaipena: «milagroa egin du gurutze santuak» eta «aziyo bat polita eman da nere ustez, gurutze santuaren obraz ta birtutez.»⁵³ Beraz baliteke neurri batez, tropa karlistek Jainkoaren aldeotasunaz zihardutela pentsatzea.

50. *Irun*, 18. bertsoa. Zavala (1992: 242).

51. *Irun*, 11. bertsoa. Zavala (1992: 240).

52. *Irun*, 14 eta 15 bertsoak. Zavala (1992: 241).

53. Andoain, 1. eta 15. bertsoak. Zavala (1992: 257, 262).

3.5. Herritar kristinoen erlijiotasuna

Liberalek fedearen defentsa aldarrikatu ez arren beren tropa euskaldunen erlijiotasuna karlistek zutenaren antzekoa zen. Herritar kristinoen bertso gutxi daude eta euretatik atera daitekeen informazioa urria da. Dagoen gutxi horretan, zelangura ere, ikus daiteke karlistek bezalaxe Jainkoaren aipu espontaneoak egiten zituztela liberalek: «bake on bat egizu, Jaungoikoa, arren».⁵⁴ Laguntza eskariak ere azaltzen dira:

Bost illabete ziran
erreguz geundela,
konbeni bazan Jaunak
bisita gintzala;
kontsolatzalle on bat
agertutzen zala,
orra non datorkigun
Evans jenerala.⁵⁵

Horixe zioten donostiar soldaduek 1835eko karlisten setio luzea jasan ondoren, azkenean Evans jeneral ingelesa heldu zitzaielarik. Hortaz ematen du liberalek ere Jainkoaren laguntza izatearen ustea zutela. Liberal tropen erlijiotasunaren azken adibide gisa, Bilboko urbanoen bertso baten hasiera:

En el nombre del Padre
banoa astera
a cantar unos versos
erdiyak euskeraz.
(...)⁵⁶

Hola bada soldadu liberal euskaldunen fedea karlistena bezain berezkoa agertzen zaigu, aipu erlijiosoekin han-hemenka.

4. Ondorioa

Hau guztia ikusi ostean, hasieran egin dugun iturrien kritika alde batera utzita, era honetara laburbil dezakegu auzia (beti ere bertsoetan ikusten denaren arabera):

Foruei dagokienez, jada Hirurteko Liberalean euren galeraren arriskuaz ohar egiten dute eliztarrek. Zazpi Urteko Gerran baina, herritar karlistek sekula ez dute «forurik» errebindikatzeko izen horrekin behintzat. Bai defendatzen dituzte foruekin zerikusia bide duten «lehengo legeak» edo «leheneko legeak», liberalerik lege horiek haustea egotziz. 1834ko eta 1837-38ko bertso karlistetan agertzen diren espresio horietan, forua barne hartzen duen Antzinako Errejimeneko legeriaren eta bizimoduaren kontzeptio herritarra jasotzen dela dirudi. Nolanahi ere, errebindikazio hori ez da maizegi agertzen. Bestalde kristinoek berek, gerraren azken aldean egindako bertsoetan, «leheneko legeen» mantentzea eskatzen dute; beharbada

54. *Chanson cristino*, 9. bertsoa. Zavala (1992:146).

55. *Maitzaren bosteko...*, 12. bertsoa. Zavala (1992: 215).

56. *Canciones de los urbanos*, 1. bertsoa. Zavala (1992: 189).

euskal liberal moderatuek foruak gordetzeko zuten jarrera erakutsiz edo agian karlistak erakartzeko asmoz.

Erljioaren auzian, herrietako apezak gerra bultzatzen agertzen dira hasieran. Baina erlijiotasuna nagusi zen bando guztietan, nahiz soilik karlistek erabili errebindikazio moduan. Halaber integrisimo / antiklerikalismo polarizazio markatuena talde-gidari eta eliteen artean ikusten da (elizgizon karlistak batetik eta liberal ikasiak bestetik), eta gutxiago baseetan. Soldadu karlistak fededunak ziren eta haren defentsa asumitzen zuten. Baina inoiz egotzi zaien fanatismo erlijiosoa, bertsoetan behintzat ez da ageri. Bestalde tropa liberal euskaldunen fedea ez bide zen karlistenagandik oso desberdina.

Amaitzeko hitz bi iturriari buruz. Ukitu dugun gai zehatzetik haratago, lan honek historiografian bertsoek duten erabilgarritasuna ikusteko balio dezake. Gure asmoa Zazpi Urteko Gerrako hitz neurtuekin jarraitzea da, garaiko auzi gehiago aztertuz (karlistek eta kristinoek euren buruzagiak nola ikusten zituzten, klase-interesak, euskal imajinarioak, e. a.). Baina karlistadaren gaiaz gain, bertsoek euskal historiako beste arlo ugari jorrazteko informazioa eskaintzen dute: Amerikarako migrazioak, Marokoko gerrak, Kubako gerra, Berrezarkuntza garaia, e. a.⁵⁷ Hola bada, aurrerantzean, bertsoak iturri legez darabiltzaten ikerketak gehituz joango direla espero dugu. Artikulu honek abiapuntu bat finkatzen lagundu badu sobera asebateak ginateke.

Bibliografia⁵⁸

- AA (1988): *II Seminari Internacional d'Historia: Carlisme i moviments absolutistes a l'Europa de la primera meitat del s. XIX*, Girona.
- Agirreazkuenaga, J. - Ortiz de Orruño, J. M. (1990): «Algunes puntualitzacions sobre la insurrecció carlina al País Basc: l'actitud dels notables rurals», J. M. Fradera et al. (arg.), *Carlisme i moviments absolutistes*, Eumo, Vic.
- Agirreazkuenaga, J. - Urquijo, J. R. (arg.) (1990a): *150 años del convenio de Bergara y de la ley del 25 de octubre de 1839*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- , (1990b): «Antología de versos, canciones y sonetos relacionados con los fueros, la guerra y el convenio de Bergara», *150 años del convenio de Bergara y de la ley del 25 de octubre de 1839*, J. Agirreazkuenaga eta J. M. Urquijo (arg.), Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 507-572 orr.
- , (1993): *Gerra eta bakea Euskal Herrian. Politikagintza lege zaharraren krisialdian*, Gaiak, Donostia.
- Aróstegui, J. et al. (1993): *El Carlisme sis estudis fonamentals*, L'Avenç - Còrsia 7, Bartzelona.
- Azkue, R. M. (1990): *Cancionero popular vasco*, I. bol., Euskaltzaindia, Bilbo (1. ed. 1923koa).
- Baleztena, D. (1957): *Cancionero popular carlista*, Temas Españoles, Madril.
- Bullón de Mendoza, A. (1992): *La primera guerra carlista*, Actas, Madril.

57. Bertsoek gure historiografiarako duten balioa, oraintsu Txillardegik (1994, *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, Tafalla, 99-100. orr.) eta Koldo Izagirrek (1997, *Incursiones en territorio enemigo*, Pamiela, Iruñea, 12. orr.) birgogorarazi digute. Aitzindaria, jakina, Antonio Zavala izan da. Berari zor dizkiogu hainbat gai aztertzeke ezin interesgarriagoak diren bertso-bildumak. Euretara jo dezala irakurleak.

58. Bibliografia hau ez da erabatekoa. Testuan aipaturiko liburuetara eta oinarrizko bibliografiara mugatu gara.

- Caro Baroja, J. (1972): *Etnografía histórica de Navarra*, III. bol., Editorial Aranzadi / CAN, Iruñea.
- Estornes Zubizarreta, I. (1976): *Carlismo y abolición foral*, Auñamendi, Donostia.
- Extramiana, J. (1979): *Historia de las guerras carlistas*, II bol., Haranburu editorea, Donostia.
- Fernández de Pinedo, E. (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco, 1100-1850*, Siglo XXI, Madrid.
- Fradera, J. M. et al. (arg.) (1990): *Carlisme i moviments absolutistes*, Eumo, Vic.
- Garmendia, V. (1985): *La ideología carlista (1868-1876). En los orígenes del nacionalismo vasco*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Gómez, C. (zuz.) (1991): *Los carlistas. 1800-1876*, Besaida Bilduma, Sancho el Sabio, Gasteiz.
- Haritschelhar, J. (1978): *Quelques chansons basques de la première guerre carliste (1833-1839)*, Actes du colloque international d'Etudes Basques, Baiona.
- Irigoyen, A. (1978): «Konstituzioko dama eta beltzak 1823garren urteko Markina, Xemein eta Etxebarrin», *Zehatz*, II-3.4, 78ko Uztaila/Abendua, 43-70 orr. (Berrikiago: 1985, *De re philologica linguae vasconicae*, Bilbao, 205-219 orr.).
- Labayen, A. (1976): *Muñagorri, eskribaua, pakegille eta fuerozale*, Donostia.
- Mina, M. C. (1981): *Fueros y revolución liberal en Navarra*, Alianza, Madrid.
- Pan-Mojo, J. (1990): *Carlistas y liberales en Navarra (1833-1839)*, Nafar Gobernua, Iruñea.
- Pérez Ledesma, M. (1996): "Una lealtad de otros siglos (en torno a las interpretaciones del carlismo)", *Historia Social*, 24. zbk., 133-149 orr.
- Ugarte, J. (1991): "La primera guerra carlista y el régimen foral", *Los Carlistas 1800-1876*, Carmen Gómez (zuz.), Besaida bilduma, Sancho el Sabio, Gasteiz.
- Urquijo, M. (1994): *Liberales y carlistas. Revolución y fueros vascos en el preludio de la última guerra carlista*, Tesis doctorales, UPV-EHU, Bilbo.
- Urrutikoetxea, J. (1984): *Karlismoa*, Elkar-AEK, Donostia.
- Wilhelmsen, A. (1995): *La formación del pensamiento político del carlismo*, Actas, Madrid.
- Zavala, A. (1964): *Bosquejo de historia del bersolarismo*, Auñamendi, Zarautz.
- , (1992): *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*, Auspoa, Tolosa.
- , (1997): *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, Auspoa Liburutegia, Oiartzun.